



Abuztuaren 12a, Gazteen Nazioarteko Eguna

Euskadiko III. Gazte Planak gazteriaren arloko euskal estrategia taxutzen du eta 2020rako lortu beharreko 25 helmuga proposatzen ditu

Gazteen bizi-baldintzak hobetze aldera gauzatu behar diren aldaketak ezartzen ditu [2012ko ekainaren 12an](#) onartu den [Euskadiko III. Gazte Plana 2020](#)k. Hobekuntza hori bi ardatzetan gertatu behar da: bai emantzipazioan eta autonomian, bai bizi-kalitatean eta gizarte-kohesioan.

Planaren eta gazte-politiken arrakasta ebaluatu ahal izateko, kuantifika daitezkeen 25 helburu proposatu dira, hartu behar dugun bidea ezartzen digutenak. Azpimarratu beharra dago ahalegin handia egin dela denbora-muga argi batean erdiestekoak diren helmugak ezartzen, ez baita orain arte horrelakorik egin.

[Gazteen Euskal Behatokiak](#), bere aldetik, 25 helmuga estrategiko horiei lotutako [Adierazleen Multzoa](#) landu du. Adierazleen multzo horri esker, hasierako egoera zehaztu da, bai eta 2020rako lortu behar den balioa ere. Adierazle horiek eskura izanda, errazagoa izango da helmugan betetze-mailaren jarraipena eta monitorizazioa, batetik, eta, bestetik, burutuko diren ekintzen arrakasta edo porrota ebaluatzea.

29 adierazlek osatzen dute Adierazleen Multzoa. Gazteen bizitzaren funtsezko 9 alderdi hauetan taldekatuta daude: hezkuntza, enplegua, etxebizitza, osasuna, gizarte-ekintza, kultura, aisia, kontsumoa eta mugikortasun iraunkorra.

Adierazleak taxutzeko, III. Gazte Planaren Marko Orokorrean eta Gazteen Euskal Behatokiak egindako [Gazteen egoeraren diagnostikoa](#) zehaztuta dauden esku-hartze lerroak aintzat hartu dira.





III. GAZTE PLANA 2020REN HELMUGAK ETA ADIERAZLEAK

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA			
HELBURUA	ADIERAZLEA	2010EKO BALIOA	2020KO HELMUGA
Emantzipatutako gazte-kopurua handitzea.	Emantzipazio-tasa	%44,6	%50
Emantzipatzeko adina aurreratzea.	Emantzipatzeko batez besteko adina	29,9 urte ^a	28 urte
Eskola-uzte goiztiarraren tasa murriztea.	Eskola-uzte goiztiarraren tasa	%10,8	<%10
Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko ikasketa-maila handitzea.	Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako graduazio-tasa	%80,1 ^b	%90
Gazte hirueledunen kopurua handitzea.	Hirueletasun-tasa	%26 ^c	%35
Goi-mailako ikasketadunen kopuruari eustea.	Goi Mailako Hezkuntzako prestakuntza dutenen ehuneko	%43,7	>%44
Gazteen langabezia murriztea.	Gazteen langabezia-tasa	%18,4	%10
Gazteen enpleguan aldi baterako kontratuen kopurua murriztea.	Aldi baterako kontratudunen tasa	%46,4	%35
Gazteen artean enpresagintza areagotzea.	Norberaren kontura lan egiten dutenen tasa	%5,2	%10
Gazteen artean lan-istripuak murriztea.	Laneko istripuen tasa	%48,4	%40
Etxebizitza alokatzeko ahalegin ekonomikoa murriztea.	Alokairuko etxebizitzaren merkatura sartzeko kostua	%62,6	%40
Alokairuan bizi diren gazteen kopurua handitzea.	Alokairu-erregimeneko emantzipazioa	%19 ^a	%35





2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA

HELBURUA	ADIERAZLEA	2010EKO BALIOA	2020KO HELMUGA
Gazteen bizi-kalitatea hobetzea.	Satisfazio pertsonalaren indizea	6,7 ^d	>7
Trafiko-istripuen ziozko gizon gazteen hilkortasun-tasa murriztea.	Gizonen hilkortasun-tasa, trafiko-istripuak direla-eta	10,9 / 100.000 ^c	5 / 100.000
Gazteen artean gizentasuna eta sedentarismoa murriztea.	Gizentasun-tasa	%3,9 ^e	<%3
	Jarduera fisikoa	%27,4 ^e	%40
Gazteen artean drogen kontsumoa murriztea.	Tabako-kontsumoa	%32,8	%25
	Alkoholaren asteburueta-ko gehiegizko kontsumoa eta arrisku-kontsumoa	%22,4	%15
	Kannabisaren ohiko kontsumoa	%7,5	<%5
Nerabegaroko haurdunaldi-kopurua murriztea.	Nerabegaroko haurdunaldien tasa	%008 ^c	<%005
Familia-bizileku gazteetan pobrezia-arriskua murriztea.	Pobrezia-arriskua	%10,9 ^b	<%8
Etxeko lanetan, genero-aldea murriztea.	Genero-aldea etxeko lanetan	0,49 minutu ^b	<0,15 minutu
Gazte gehiagok parte hartzea jarduera artistikoetan.	Partaidetza jarduera artistikoetan	%39,8 ^b	>%45
Gazteen artean irakurtzeko ohitura handitzea.	Irakurtzeko ohitura	%44,6 ^b	>%50
	Euskaraz irakurtzeko ohitura	%43,5 ^b	>%50
Euskararen erabilera areagotzea gazteen artean, aisialdian.	Euskararen erabilera lagunartean	%45 ^b	%55
Gazte-elkartekidetza areagotzea.	Ekartekidetza-tasa	%41	>%45
Gazteen artean kontsumo iraunkorra areagotzea.	Kontsumo iraunkorra	%41	%50
Gazteek garraio publiko kolektiboa gehiago erabiltzea.	Garraio publiko kolektiboaren erabilera	%33,4 ^b	%50

^a 2006ko datua^b 2008ko datua^c 2009ko datua^d 2011ko datua^e 2007ko datua